

OHIZKO OSOKO BILKURA

2014.07.29

Tolosako Udaletxean, 2014ko uztailaren 29an, arratsaldeko 7,30tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Ibai Iriarte San Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:30 horas del día 29 de julio de 2014, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión Ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San Vicente, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Asier De los Rios Soraluze
Igor Ezenarro Balda
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Mikel Arreseigor Astibia
Rosa Maria Urkola Irigoyen
Jon Koldobika Arsuaga Artola
Ainhoa Etxeberria Aranburu

Jon Aldazabal Etxeberria
Miren Ezkiaga Etxezarreta
Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Nuria Carbonell Miranda
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez Bertaratua:

Olatz Peon Ormazabal

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

1.-Ondorengo akta onartzea:

2014ko ekainaren 30eko Osoko Bilkurakoa

1.-Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 30 de junio de 2014.

2.-Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2.-Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

2014ko ekainaren 1etik 30era (2014/800-2014/963).	Del 1 al 30 junio de 2014 (2014/800 al 2014/963).
3.- Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzen 111. eta 116. artikulua (ostalaritza eta jolas jarduerak arautzen dituztenak) aldatzeko proposamena.	3.- Propuesta de Modificación de los artículos 111 y 116 (que regulan las actividades de hostelería y recreativas) de las Ordenanzas Municipales de Urbanización, Edificación y Protección Ambiental, Paisajística y Naturalística.
4.- 2013ko Udal Sektor Publikoaren Kontu Orokorra.	4.- Cuenta General del Sector Público Municipal 2013.
5.- Palestina herriaren aurkako eraso salatzeko EH-Bilduk aurkeztutako mozioa.	5.- Moción presentada por EH-Bildu en denuncia contra la agresión sufrida por el pueblo Palestino.
6.- Erregu-galderak	6.- Ruegos y preguntas

Saioa hasi aurretik honako adierazpenak izan dira:

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Egin nahi nituzke pare bat aipamen eta bereziki bat: gaur 14 urte dira Juan Mari Jauregi ETAK hil zuela Tolosan, Kafe frontoian. Nik uste dut denok daukagula gogoan momentu horretan non ginen; data iluna da, iluna Tolosarentzako, mingarria ere bai herri honentzako, baita euskalerrarentzako ere, eta hemendik besarkada bat familiari eta inguruko alderdikideei. Hala ere, esan nahi nuke eguna nahiko traketsa izan dela, tolosar gazte bat atxilotu dutelako. Honek erakusten du herri honetan oraindik zauri asko sortzen jarraitzen dutela eta badela garaia benetako bizikedetza eta elkarbizitza sustatzeko. Esan nahi nuke, azken finean, biolentziaren -eta gero palestinako gaia jorratuko dugu- espiralean sartzen garenean ateratzea oso zaila dela, baina atera beharra dagoela, guregatik eta geroko belaunaldiengatik.

Zentzu horretan aipatu elkarrizketa eta elkarbizitza sustatzeko formarik hoberena eta forma bakarra eta nik uste dut Juan Mari bere bizitzan erakutsi zuenarekin ere ados egongo litzatekeela, bere emazteak esaten zuen bezala: etorkizunean ez hilketa gehiagorik, ez biolentzia gehiagorik, ez atxiloketa gehiagorik, ondorengo belaunaldiari jasan duguna baino bizi edo ingurune oparogo bat eta baketsu bat eskeini behar zaio. Eta besterik gabe hau esan beharra neukan eta horrela adierazten dut plenoaren hasieran.”

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Minutu bat, bai, nik Juan Mari gogoratzeko eta baita Antxon Gonzalez ere. Gainera ez banago oker biak hemen egon ziren batera zinegotzi bezela eta garai zailtan.

Eskertzen dizkizut zure hitzak eta guk, orain dela 14 urte hil zutela Juan Mari, urtero gogoratzen dugu, bai lagunek, bai alderdikideek, eta beti idatzi bat ateratzen dugu. Uzten badidazue azkeneko zatia irakurriko dut bakarrik gure iritziz zer pentsatuko zuen Juan Mari gaur bizi dugun garaietaz adierazteko, eta horrela esaten du: "Juanmari seguramente así viviría el momento actual en la sociedad vasca. Tras la derrota de ETA con los instrumentos del estado de derecho, nos diría que no es bueno mirar al pasado continuamente, pero eso sí, sin olvidar nunca lo que ha sido la Historia reciente, ante todo memoria y dignidad para las víctimas del terrorismo etarra. Nos pediría altura de miras, nos pediría un esfuerzo para construir una sociedad en la que el adversario político nunca sea considerado un enemigo, una sociedad donde la diversidad de ideología e identidades sea considerada como algo normal y enriquecedor. Y seguramente Juanmari pensaría que si ETA y sus inspiradores decidieran su disolución total y el reconocimiento del daño causado –lo hicieran sus militantes de forma individual, rompiendo sus lazos con la banda- la sociedad democrática actuaría con generosidad e inteligencia, contribuyendo a la consolidación de la convivencia."

Eta gainera, gaur, seguraski, denok ikusi duzue beraren kontra atentatu zuen batek, Ibon Etxezarretak, kaleratu duen idatzia, eta honen zati bat irakurriko dut:

“Badakit gutun hau oso beranduegi iristen dela, hala eta guztiz ere, urteurren triste honetan argi eta garbi esan nahi dizuet Juan Mari Jauregiren familiari eta lagunei bihotzez sentitzen dudala orain dela 14 urte egindakoa.”

Beste kontsideraziotan ez nahiz sartzen, baina hauek baldin badira pausoak, izan daitezela, eta ikusiko dugu etorkizunean zer nolako elkarbizitza sendotzen dugun.”

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.-Ondorengo akta onartzea:

2014ko ekainaren 30eko Osoko Bilkurakoa

1.-Aprobación de la siguiente acta:

Sesión Ordinaria de 30 de junio de 2014

... Lore Agirre Zipitria, Bildu:

“7. puntuko nere interbentzioan, bukaeran, aldaketa hau egitea eskatzen dut:

- Esaten duenean:

eta momentu horretan ailegatu zitzaigun gure konpromisoa ez zutela berriro sinatuko,

Esan behar du: “berriro” kenduta.

...eta momentu horretan ailegatu zitzaigun gure konpromisoa ez zutela sinatuko,

- Esaten duenean:

... negoziaketa Udalaren barruan eman behar zelako

Esan behar du: udalaren hitza kenduta.

... negoziaketa Eudelen barruan eman behar zelako

- Esaten duenean: *Udaleko langilegoa gabe ez langilegoa bakarrik*

... hemen gauden 17ok ez garelako ezer, Udaleko langilegoa bakarrik.

Esan behar du: “bakarrik” hitza kenduta.

... hemen gauden 17ok ez garelako ezer, Udaleko langilegoa gabe.

Aipatutako akta, aurrean jarritako zuzenketekin, aho batez, onartu da.

2.- Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2014ko ekainaren 1etik 30era (800 / 2014 – 963/2014)

2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:

Del 1 al 30 de junio de 2014 (800/2014-963/2014)

Alkatetzak, 2014ko ekainaren 1etik 30era bitartean (800/2014-963/2014) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira eta denak ados agertu dira.

3.-Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzen 111. eta 116. artikulua (ostalaritza eta jolas jarduerak arautzen ditztenak) aldatzeko proposamena.

3.-Propuesta de Modificación de los artículos 111 y 116 (que regulan las actividades de hostelería y recreativas) de las Ordenanzas Municipales de Urbanización, Edificación y Protección Ambiental, Paisajística y Naturalística.

Lehenik eta behin, 111. artikulua ostalaritza eta jolas jardueretara lotutako lokalak eta saltokiak zabaltzea arautzeko baldintzak aurreikusten ditu. Honela, 111. artikulua bi egoera ezberdintzen ditu: batetik, baldintza orokorrak arautzen dira eta, bestetik, berriz, baldintza bereziak, non Udal ordenantza hori indarrean jarri aurretik udal-lizentzia duten jarduerak arautzen diren.

Horren aurrean, alde batetik, ez da arrazoirik ikusten oraingo Ordenantzaren arabeko jarduerak eta Ordenantza hau indarrean jarri aurretik udal-lizentzia duten jarduerak ezberdintzeko eta, ondorioz, lokalak edo saltokiak handitzeko baldintzak bi kasuetan berberak izatea proposatzen da. Beraz, oro har, 109. artikuluan azaldutako jardueren arteko distantziak ez dira kontuan hartuko lokalak eta saltokiak handitu ahal izateko.

Bestalde, baldintza berri bat jarriko da handitzeak mugatu ahal izateko: handitzeak onartuko dira, beti ere, jarduerak kokatzen diren partzela edo eraikinaren muga barnean egiten badira.

Bigarrenik, 116. artikulua komunak arautzeko baldintzak aurreikusten ditu. Hain zuzen, indarrean dagoen testua jarduerak 80 m²-ko frakzioetan banatzen ditu eta, gutxienez, bi komun ezberdin egitea arautzen da. Komunaren kopuruan, beraz, ez dago inongo salbuespenik 80 m² baino azalera publiko txikiagoa duten lokaletan.

Azalera publikoa erabilera publikora edota egonaldi zuzendutakoa izango da, eta azalera horretan ez dira zenbatzen komunak, sukaldea, biltegiak, bulegoak, etab. Ordenantzetako 103.1 artikuluan definitzen da hau.

Kasu askotan, 80 m² baino gutxiagoko lokaletan bi komun eskatzeak, tamaina txikia dela eta, lokalaren azalera publikoa asko murriztea dakar.

Gai honen inguruan, beste Udaletako Ordenantzak aztertu dira, eta Donostian, adibidez, azalera publikoa 25m² baino txikiagoa denean komun bakarra egitea eskatzen da.

116. artikuluko E puntuaren testua ezberdina da euskaraz eta gazteleraz, testu egokia gaztelerakoa izanik; beraz, euskarazko testua zuzendu egingo da.

Hortaz, 116. artikuluko 2. atal osoa eta 1. ataleko A eta B baldintza orokorrak aldatzea proposatzen da. Bestalde, E puntuan dagoen akatsa zuzenduko da.

Guzti honen aurrean, Hirigintza batzordearen diktamena kontuan izanik, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

Lehena.- Haseraz onartzea Urbanizazio, Eraikuntza eta Ingurumena, Paisaia eta Natura Babesteko Udal Ordenantzaren 111. eta 116. artikuluen aldaketa. Artikulu horien testua horrela geratuko litzateke aldaketa egin ondoren:

111. artikulua. Ostalaritza eta jolas-jardueretara lotutako lokalak eta saltokiak zabaltzea arautzeko baldintzak

Titulu honetan araututako ostalaritza- eta jolas- jarduerari lotutako lokalak eta saltokiak handitu ahal izango dira, baldintza hauek betetzen badira:

A. Nolanahi ere, zuzeneko eta etengabeko komunikazioa izan beharko da, batetik aurretik dagoen jarduerara lotutako lokalaren eta, bestetik, proposatutako handitzearen eraginpekoaren artean.

B. Handitzeak ezingo du inoiz jarduera sartuta dagoen taldearen aldaketarik berekin ekarri edo horrekin lotuta egon. Aldaketa hori ekartzen badu, jarduera sartuta egongo den talde berrirako Ordenantza hauen 109. artikuluan finkatutako distantziak bete beharko dira.

C. Handitzeak soilik onartuko dira, jarduera kokatzen den partzela edo eraikinaren mugen barnean egiten bada.

D. Ezingo dira sarrerako ate berriak ireki ezta lehendik daudenak lekuz aldatu.

116. artikulua. Komunak arautzeko baldintzak.

1. Baldintza orokorrak.

A. Oro har eta gutxienez, komun bat izan beharko da, emakumezkoentzat nahiz gizonezkoentzat izango dena. Komunak bete beharko ditu indarreko irisgarritasun arauetako dimentsioak eta baldintzak.

B. Bi komun edo gehiago gaituz gero, horietako batek, gutxienez, bete beharko ditu indarreko irisgarritasun arauetako dimentsioak eta baldintzak, eta beste komunek izango dituzte egoki eta eroso erabili ahal izateko neurri eta forma nahikoak eta 1,00 metroko zabalera, gutxienez.

C. Komun-ontzia 45 eta 50 cm arteko mailan jarriko da, eta barra metaliko horizontal eraisgarri edo finkoak izango ditu gurpil-aulkiaren erabiltzaileak bermatzeko erabil ditzan, eta arloan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritako baldintzetan jarriko dira.

D. Komunak lokalaren edo saltokiaren azalera publikoaren gainerakotik isolatuko dira, azalera horretatik bereizitako gelaurre baten bidez, arloan indarrean diren legezko xedapenetan ezarritako baldintzei jarraituz gaituko dena. Gelaurre horrek gutxienez azalera eta forma egokiak izango ditu, oztoporik gabe gutxienez 1,50m-ko diametroko zirkulu bat inskribatu ahal izateko. Gelaurre horietan konketak instalatzea besterik ez da onartuko. Pixatokiak lokalaren gainerakotik isolatuta egongo da eta, beraz, debekatuta egongo da horiek gelaurreetan instalatzea.

E. Komunean aireztapena modu naturalean egin daiteke, kanporako baoen bidez. Aireztapena indartua egin behar bada bao horiek fatxadara edo patiora ematea onartuko da 100 m²-tik beherako azalera publikoa duten lokaletan.

F. Hormak eta zoruak estaltzeko materialak zeramikazkoak edo antzekoak izango dira, erraz ikustekoak izan daitezten. Materia ez-labainkorra izango da, baina sareta duten hustubideek ezingo dute zentrimetro batetik gorako argi-artekarik izan.

G. Hustuketa fatxadara egiten bada, irteera espaloia sestraren gainean gutxienez 2,50 m-ko garaieran jarritako sareta baten bidez egingo da.

H. Aireztapena modu behartuan egiten denean, kontrolatu egin beharko da, aireak irtetez ez dezan inolako eragozpenik sor.

2. Komun kopurua lokalaren azalera publikoaren arabera.

A. Azalera publikoa 25 m² edo txikiagoa denean: komun bakar bat izan beharko da, gutxienez, eta emakumezkoentzat nahiz gizonezkoentzat izango da. Komunak komun-ontzia eta konketa izango ditu gutxienez. Konketa komunean nahiz komun aurre-espazioan egin ahal izango da.

B. Azalera publikoa 50m² edo txikiagoa denean: bi komun izan beharko dira, bat emakumezkoentzat eta bigarren gizonezkoentzat. Komunek, gutxienez, komun-ontzia eta konketa izango dituzte. Konketak komunean nahiz komun aurre-espazioan egin ahal izango dira. Konketak, soilik, komunean aurre-espazioan jartzen badira, bi konketa jarri beharko dira.

C. Azalera publikoa 80 m² edo txikiagoa denean: bi komun izan beharko dira, bat emakumezkoentzat eta bigarrena gizonezkoentzat. Komunek komun-ontzia eta konketa izango dituzte, eta gizonezkoen komunean pixatokia instalatzea gomendatzen da. Hirugarren konketa bat jarri ahal izango da komun aurre-espazioan.

D. Azalera publikoa 160 m² edo txikiagoa denean: bi komun izan beharko dira, bat emakumezkoentzat eta bigarrena gizonezkoentzat. Emakumezkoenak bi komun eta bi konketa

izango ditu, gutxienez, bi lokal ondo bereizietan. Gizonezkoenak, berriz, komuna, pixatokia eta konketa izango dituzte, gutxienez, bi lokal ondo bereizietan.

E. Azalera publikoa 160 m² baino handiagoa denean: 160 m²-tik gora, eta 80m²-ko frakzio bakoitzeko bi komun unitate gehiago jarriko dira, bat emakumezkoentzat eta bestea gizonezkoentzat. Unitate horiek komuna eta konketa izango dituzte emakumezkoentzat, eta pixatokia edo komuna eta konketa gizonezkoentzat.

F. Artikulu honetan araututako komun kopurua murriztu ahal izango da, lokalaren erabilera, barne- banaketa eta okupazioaren arabera, honako kasu hauetan:

- 6. taldeko jarduerak
- 8. taldeko jarduerak
- Jatetxeak soilik diren 2. taldeko jardueretan.

Edonola ere, udaleko zerbitzu teknikoek txosten baten bidez justifikatutako beharko dute komun kopuruaren murrizketa, aurrez aipatutako irizpideen arabera.

Bigarrena.- Espedientea, gutxienez, 30 egunez jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Hirugarrena.- Araudiaren aldaketa behin betiko onartutzat jotzea, aurreko puntuan adierazitako epean ez bada erreklamazioa edo iradokizunik aurkezten.

4.-2013ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra	4.-Cuenta General del Sector Público Municipal 2013.
--	---

Udalaren 2013ko Kontu orokorra jendaurrean jarri zen, hamabost eguneko epean, interesatuek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hori horrela, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2014ko ekainaren 27an (121 zenbakian) eta udaletxeko iragarki taulan argitara eman zen eta, epe barruan, ez da inolako erreklamaziorik edo oharpenik aurkeztu.

Hori guztia kontutan izanik, Kontu Batzorde bereziak 2014ko ekainaren 19an emandako diktamenaren arabera, udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Tolosako udalaren 2013ko urteko Kontu orokorra onestea. Kontu orokorra honoko agiri hauek osatzen dute:

Udalaren Kontua.

Iurramendi Egoitzaren Kontua.

Erretengibel, S.A.ren Kontua.

Tolargi, S.L.ren Kontua.

Tolosa Lantzen, S.A.ren Kontua.

Tolosa Lotzen, S.A.ren Kontua.

Tolosa Gasa, S.A.ren Kontua.

Udal Sektore publikoaren Kontu Bateratua.

BIGARRENA.- Espedientearen berri Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Foru Aldundiari eta Kontuhartzailtza departamentuari ematea.

<p><u>5.-Palestina herriaren aurkako erasoak salatzeko EH-Bilduk aurkeztutako mozioa.</u></p>	<p><u>5.-Moción presentada por EH-Bildu en denuncia contra la agresión sufrida por el pueblo Palestino.</u></p>
--	--

Nahiz eta hiru mozio gaiaren inguruan aurkeztu diren (EH-Bilduk, EAJ-PNV-k eta PSE-PSOE-k), adostutako adierazpen instituzionalak ordezkatu ditu, eta honela dio hitzez hitz:

“Hiru gazte israeldarren desagerpen eta heriotza tragikoaren ondotik, palestinar biztanleriaren kontrako zigor kolektibo bat ari da burutzen Israelgo gobernuak. Horren ondorioz ehunka lagun hil dira, gehienak zibilak, eta beste milaka zauritu dira.

Bilakaera militarrek gora egin du, Israelek lurretik erasoari ekin ondoren, eta horrek operazio militar honen eragin suntsitzailea biderkatu egin du.

Israelek Gazaren kontra burututako erabateko erasoak, munduko zonalde populatuenetariko baten kontrakoak, proportzionaltasun, zuhurtzia eta borrokalariaren eta zibilen arteko bereizketa printzipioak urratzen ditu, eta nazioarteko legeriak dioen moduan guztiz arbuiatu behar da.

Ezer konpontzetik urrun, erasok lortuko duten gauza bakarria egoera okertzea eta eskualdeko ezegonkortasuna handitzea izango da. Honez gain, gatazkarekin zerikusirik ez duten biktima ugari sortzen ari da.

Horregatik Tolosako udalak bortizkeria jardura hau gelditzeko urgentziazko deia egiten du, eta NBERen ebazpenetan oinarrituriko eta elkarrizketaren zein negoziazioaren bidezko gatazkaren konponbidearen beharra berresten dugu. Baita Giza Eskubideen errespetu osoa ere.

Hainbat indar palestinarrek sustatutako batasun nazionalako gobernuak mehatxu gisa ulertu beharrean, aukera eta norabide egokian emandako urrats gisa ulertu behar da, Palestinako herriaren ahots bateratuak edozein irtenbide errazten duelako.

Nazio Batuek onartutako mugak dituen Estatu Palestinar bideragari baten aitortza dakarren elkarrizketa eta negoziazio prozesu inklusibo batek soilik, jar dezake konpontze bidean, sufrimendu izugarria eta eskualdean etengabeko ezegonkortasun eragin dituen gatazka hau.

Hori dela eta, Tolosako udalak zer exigitzen du:

1.- Tolosako Udalak elkartasuna, errespetua eta aitortpena erakusten dizkio Palestinari, eta doluminak eman biktima guztiengatik, Israelek Gazako zerrendan “Babes eremua” izenarekin ezarritako zigorra dela-ta. Era berean, errefusatzen du ekimen hori, eta eskatzen dio Israeli bertan behera uzteko eraso horiek.

2.- Tolosako Udalak honako eskaera hauek egiten dizkio Israelgo Estatuari, nazioarteko legeriarekin bat etorriz:

Arabiarren lurren okupazio eta kolonizazioa bertan behera uzteko eta Murru ilegala botatzeko. Israelen bizi diren paletinarren oinarrizko eskubideen erabateko berdintasuna bermatzeko. Sustatzea, babetea eta errespetatzea palestinar errefuxiatuen itzulera, Nazio Batuen 194 ebazpenak aitortzen duen gisara.

Nazio Batuen Erakundeko errelatoreen arabera gerrako krimenak egin dituztenek nazioarteko auzitegietan erantzungo dutela bermatzea.

3.- Tolosako Udalak eskatzen dio nazioarteko komunitateari jartzeko ahal dituen baliabide guztiak presionatzeko Israel, honek bere obligazio legalak bete ditzan; berresteko Zuzenbide Estatu eta babesteko paletinarren bake eta segurtasuna, paletinarren oinarrizko giza eskubideak errespetatzea barne.

4.- Ildo horretatik, eta Israelek paletinarren aurka ezarritako apartheid politikak irauten duen bitartean, adierazten du asmoa duela hausnartzeko bere atxikimendua BDS (boikota, desinbertsioak eta santzioak) kanpainari, eta animatzen ditu herritarrak kontuan hartzera horrelako ekimenak.

5.- Tolosako Udalak gonbidatzen ditu herritarrak parte hartzera Israelek Paletinaren aurka jarritako zigorra salatzeko antolatutako ekimenetan, paletinarrei elkartasuna eta gertutasuna erakutsi diezaioten.

6.- Tolosako Udalak eskatzen dio Espainiako Gobernuari Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez gaitzespen deklarazio hau helarazteko Israelgo erakunde eskudunei, hartutako konpromisoak bete ditzaten eta amaiera eman diezaioten Gazako blokeoari eta paletinarren giza eskubideen urraketari; ahaztu gabe Paletinako herriak behin betiko akordioaren partaide integrala izan behar duela.

7.- Eskatzen dio Europar Batasunari eta Espainiako Estatuako Gobernu zentralari eteteko Europar Batasunak Israelek in darrean daukan Elkartze Akordioa, Israelek urratu egiten duelako akordio horretako bigarren artikulua (errespetua giza eskubideei).

8.- Tolosako Udalak eskatzen dio nazioarteko komunitateari areagotzeko presio diplomatikoa, eta alde guztiek ahalegin serioak eta sinesgarriak egiteko, batetik, israeldarren eta paletinarren arteko bake elkarrizketa zuzenak hasteko berrito eta, bestetik, erabaki dezaten su etena eta bi aldeek indarkeria ekintza guztiak bertan behera uztea eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzea."

9.- Israelek ulertu behar du bere existentzia gauzatzeko era bakarra bakea gauzatzea dela eta hori soilik Paletin estatua baten existentzian oinarrituz lortuko da. Era berean, Israelek nazioarteko hitzarmenak onartu behar ditu."

Aurkeztutako adierazpen hau, bozketara jarri ondoren, aho batez Udalbatzak onartu du.

Parte hartzeak:

Publikotik Palestinar ordezkari batek hitza hartu du. Bere partaidetza espedientean (DVD) jasotzen da.

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:

“Lehenik, estimatu nahi ditut zure azalpenak (Palestinatar ordezkariarenak), lekukoa zara, bertakoa zara eta inportantea da iritzi zuzen hori jasotzea.

Bigarrenik, elkartasuna, egun hauetan gertatzen diren biktima guztien familiei eta herriari eta zuei ere.

Bestetik, lotsa sentitzen dugula adieraztea, esan den bezala, ematen duela Israelgo estatua nazioarteko zuzenbidearen ginetik dagoela. Milaka erresoluzio daude; badaude hainbat erresoluzio nazioarteko erakundeenak; badira bake elkarrizketak, nazioarteko komunitateak bultzatutakoak, eta beti bukaera, eta azkenekoa da adibide, bukaera beti Israeliek jartzen du. Azkeneko aitzakia Hamas-ek eta OLP-k elkar hartu dutela Palestina aurrera ateratzeko. Europa eta Europako erakundeek, eta gu europarra garen bezala, beti beste aldera begiratu izan dugu, nahiz eta garbi adierazten den Europako Batasunaren eta Israelgo asoziazio hitzarmen horren 2. artikuluan Israel behartuta dagoela nazioarteko legegintza errespetatzea eta baita giza eskubideak errespetatzea ere, beste akordio guztietan dagoen bezala. Europa ausartzen da Errusiari santzioak jartzera, oraindik orain Ukrainiako kasuan, baina ez da ausartzen gauza bera egitea Israelen kasuan, eta europarra bezala lotsa sentitzen dut, horregatik eta hor dagoelako arma inportante bat. Bigarren artikulua hori aplikatuko balitz, seguruenik Israelen gobernatzen dutenen jarrera aldatuko litzateke.

Eta zergatik ez da egiten? Akaso Europak lotsa sentimentu bat duelako, garai bateko antisemitismo horren ondorioak; Europak sortu zuelako bere garaian edo bultzatu zuelako Israeleko Estatua sortzea eta, agian hortik etor daiteke arazoak. Baina gauza bat da antisemitismoa borrokatzea eta beste bat hori konfunditzea sionismo expansionista bat defenditzearekin. Momentu honetan hori egiten ari da praktikan Europa, nahiz eta hitzez beste gauza batzuk esan.

Bukatzeko, berriz adierazi elkartasuna zuekiko eta beti bezala prest egongo gaituzuela Palestinako Herriari laguntzeko, bere oinarritzko giza eskubideak eta bere eskubideak defendatzeko.”

... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE:

“Mozioa nahiko argia da eta denok adostu dugun mozioan nik uste dut oinarrizko puntu guztiak jasota daudela eta Iñakirekin erabat ados nago.

Tu lo has dicho (al representante del Pueblo Palestino), creo que tu has tocado bajo mi humilde opinion 3 puntos fundamentales: una, las 2 partes no son iguales, la desproporción en esta, no se si llamarle guerra o conflicto, es absoluta. El uso que está haciendo Israel de la fuerza es absolutamente incomprensible, está afectando en un porcentaje de 70 u 80 % a la población civil; atacando hospitales, escuelas, etc. Las imagenes estan ahí y hablan por sí solas en ese caso. Yo no tengo mucho más que añadir

Es increíble, además, de un pueblo que, si mirase a la historia, como alguien que ha sufrido el holocausto que sufrieron, cómo aplican este tipo de “políticas”. En fin, incalificable.

El siguiente punto que has tocado es verdad, porque no se cumplen las resoluciones de la ONU y porque no hacemos cumplir dichas resoluciones de la ONU. Quizás la solución vendría por ahí.

Y luego refiriéndose a Europa, y también lo ha tocado Iñaki, y lo decimos en la moción, vosotros hacéis mención también en vuestras pancartas, y es verdad, yo creo que la Unión Europea debe plantearse la suspensión de acuerdos de asociación con Israel.

Sí, yo creo que estas son las tres medidas de presión.

Es verdad que contra Rusia, sea por intereses económicos o de otra índole lo que nos afecta, somos bastante estrictos.

En el tema de Israel habrá otros intereses económicos y de otro nivel, pero para mi modesta opinión los tres puntos son los fundamentales para buscar una solución al problema de Palestina.

Desde el Partido Socialista queremos manifestar nuestra solidaridad y apoyaremos la moción, como no puede ser de otra manera.”

... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:

“Eskerrik asko etortzeagatik eta azalpen horiek emateagatik. Nik uste dut hemen daukaguna egoerarik txarrena dela. Egoera hau gertatu da, lehen gertatu zen, txarren txarrena dela irtenbiderik ez zaiolako ikusten. Ematen du gerra bat dela amaituko ez dena; bakoitzak bere helburuak ditu eta helburu horien baitan eta bakoitzak dituen armen arabera, batzuk harma handiak eta beste batzuk harriak, bakoitzak berea egiten du. Gainera ez dagoela inolako beste

Estatuen konplizidaderik. Guk ere, hemen egiten duguna gure neurrikoa izango da. Gure neurriko jarrera bat da eta mozioa bat adostea hori da lortu duguna. Agian, gehiago egin dezakegu. Estatuak gehiago egin dezake, badauzka akordioak eta hor askoz gehiago egin dezake, baina ez du egiten. Seguraski galtzeko gauz asko edukiko ditu.

Ondorioen txarrena da irtenbiderik ez zaiola ikusten. No se ve ninguna solución al problema, pero lo peor de todo esto es que son llamas que se encienden, que se apagarán, que se volverán a encender y se apagarán, por lo que no se ve luz al final del túnel. Eso es lo más triste de todo ello, porque ya estamos viendo la actitud que están adoptando el resto de los países del mundo y los estados mas potentes.

No se qué se puede hacer, posiblemente mucho, evidentemente, está en manos de Israel, pero también mucho está en manos, no tanto de Europa, sino de Estados Unidos

Es un tunel sin luz y la verdad la desconocemos. Conocemos los datos que dais vosotros, los que aparecen en los medios, lo que es triste. No se qué podríamos hacer entre todos para que hubiera más luz y se pudiera ir resolviendo este tema; porque es David contra Goliath, y además David no tiene apoyos, no tiene más que piedras, no tiene el apoyo de nada, no tiene apoyos en cuestiones que pudieran ser importantes como para quitarle fuerza a Goliath.

No se toman decisiones en ese sentido. Se han hecho propuestas desde la Comisión Europea hacia Estados Unidos, pero no se toman ese tipo de soluciones.

Queremos acompañaros en todo lo que podamos. Vemos que al año solemos tratar un par de mociones sobre Palestina. Posiblemente es poco para todo lo que podemos hacer. De todas formas estamos con vosotros y os apoyaremos en todo lo que podamos.”

... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:

“Lehenik eta behin, zorionak alderdiak mozioa adostea lortu dugulako. Niretzat oso inportantea da, gaur behintzat, adierazpen gisa sensibilitate politiko desberdinak mahai honetan gaudenak adostu izana. Ondoren, agian, erderaz hitz egingo dut uler dezaten beste aldean daudenak ere. Felicitar en primer término a todos los grupos políticos, porque hemos conseguido que ésta moción sea al final una que se apruebe por unanimidad. A mí me parece que es importante y, por otra parte, debo denunciar el genocidio que se esta dando en Palestina, en este caso, en Gaza. Pero el genocidio que se está dando contra el pueblo palestino, otra vez más, -Jokin decia que es una llama que se enciende y se apaga- pero mientras tanto se enciende y se apaga miles de vidas están siendo asesinadas, se está destrozando un país, una región, están asesinando a la poblacion civil e Israel está intentando crear el pánico y dividir a la sociedad

palestina, bombardeando hospitales, colegios e infraestructuras de las Naciones Unidas. Están tirando al garete todas las resoluciones de las Naciones Unidas y les da igual, porque, mientras contra Ucrania, Siria u otros países hay sanciones internacionales y bloqueos, a Israel se le deja hacer lo que quiera, y mientras suceda eso y mientras desde los países que realmente tienen poder, que no solo es Estados Unidos, sino también es la Unión Europea, no se haga nada y no se le sancione, no va haber ninguna forma de parar a Goliath. Porque Goliath tiene una prepotencia tremenda y lo único que busca es el exterminio del pueblo palestino. No hay posibilidad de llegar a la paz en este caso con un estado que aplica el apartheid. No hay más que ver a todos aquellos palestinos que viven en Israel y que tienen la nacionalidad israelí, a los cuales se les considera como ciudadanos de 2ª o de 5ª, porque Israel es un Estado que se basa por y para los judíos, y mientras eso no cambie no va a haber posibilidad de llegar a un acuerdo político. Está claro que el acuerdo político por medio del diálogo y de la negociación, en las que Israel no quiere participar porque no le interesa la paz, será mediante una mayor presión de los organismos internacionales que en la actualidad no existe.

En ese camino poco es lo que podemos hacer, pero desde el movimiento solidario a Palestina hay uno que se llama BDS, de boicot a las inversiones a Israel, en el que podríamos trabajar boicoteando toda acción legitimadora del Estado de Israel, intentando que por lo menos todos los artistas y toda imagen cosmopolita que Israel intenta exportar se le anteponga frente a ese espejo lo que es Israel: un país que está asesinando a miles de personas con bombas. Pero Israel hasta hace 2 meses, antes de que todo esto comenzase, seguía matando en silencio, seguía matando con el bloqueo de Gaza, seguía matando y dejando a los niños sin futuro.

Hace poco más de un mes vino un equipo de fútbol aquí, a Tolosa, cuyos integrantes estuvieron en Zuloaga Txiki, los acogimos en el Pleno, estuvimos con ellos, eran un equipo Palestino, chavales de 15-16 años, uno de los que no pudo venir fue asesinado.

¿Cuántos habrán asesinado sin que nos hayamos dado cuenta? Esto no puede seguir así y la única forma de que termine es el diálogo al que hemos hecho referencia anteriormente.

En Euskal Herria hace falta diálogo, pero en Palestina y en otros lugares también.

Me alegra de que nos hayamos puesto de acuerdo, aunque sea un granito de arena lo que podemos aportar al pueblo palestino: nuestra solidaridad con el pueblo palestino.

Beraz, mila esker etortzeagatik eta egin dezakegun guztia egingo dugu.”

Palestinar ordezkariak bere azken balorazio egin du eta jaso da espedientean (DVD).

Parte hartzea amaiturik bozketara jartzen da aurkeztutako adierazpen instituzionala eta onartu ere alderdi guztien aldeko botoarekin.

6.- Erregu-galderak	6.- Ruegos y preguntas
Ez da egon.	No ha habido

Besterik gabe, gaueko bederatzitan bilera bukatutzat eman da, eta guztia nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las nueve de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA